

# ARGIRIZ

## BASOKO PUTZU MAGIKOA



Baziren behin Donostiako auzo batean bi mutil, Juan eta Julen izenekoak. Argirizen bizi biren biak, oso pozik. Oso lagunak ziren eta dena elkarrekin egiten zuten.

Juan oso altua zen, ile marroi eta begi berde distiratsukoa. Jendearekin oso ondo moldatzen zen, bihotz oneko pertsona zelako. Julenek ile kizkur beltza zuen, Juan baino baxuagoa zen, eta isilagoa.

1999. urteko azaroko arratsalde hotz batean biak etxean zeuden, aspertuta.

—Zer egin dezakegu, Juan? —esan zuen Julenek asper-asper eginda.

—Goazen etxe ondoko basoa esploratzera! —bizi guztian izan zuen ideiarik hoberena izango balitz bezala...

Biak etxetik atera ziren basoan gauza zoragarriren bat aurkitzeko ideiarekin. Etxea atzean utzi eta basoan sartu ziren. Basoa iluna zen, argi gutxi sartzen baitzen zuhaitzen hostoen erruz. Bide ertzean hosto eroriak zeuden lur bustiaren gainean.

Basoan aurrera jarraitu zuten, jaisten eta jaisten.

—Begira, Julen! Putzu handi bat dago han!

—Egia da! Sakona dirudi, bainatuko gara?

—Ideia ona! Goazen ba!



Arropa kendu, putzuko ertz batean utzi, eta putzu barruan sartu ziren. Lehengo 20 segundoak hotzak baina oso dibertigarriak iruditu zitzaizkien; ondoren, ordea, ura kolore gorria hartzen hasi zen eta bi lagunak antzinaroko urteetara teletransportatu ziren bat-batean.

Antzinaroan zeudela jakin zuten dinosauro bat ikusi zutelako putzutik 200 m-ra. Dinosauroa etxe bat bezain handia zen, eta eskabadora baten indarra zuen. Zuhaitz bat bota zuen; horregatik izan zuten haren indarraren berri.

—Non gaude, Juan? —Julenek beldur handiarekin.

—Ez dakit, baina dakidana da putzuan sartu garela eta hona teletransportatu garela.

Putzutik atera eta arropa bilatzeari ekin zioten. Hotza zegoen eta dinosauroen beldur ziren. Arropa ez zuten aurkitu, baina beste gauza bat aurkitu zuten, hobea.

—Begira, hemen kontrol kaxa bat dago k.a. 100.000.000. urtean programatuta!

—Utzi ikusten, hemen aditua ni naiz eta... —harrokeriaz Julenek.

Julenek kaxa hartu zuen eta palanka batekin 1999. urtera mugitu zituen kaxan programatutako urteak. Botoi batzuk sakatu eta esan zion Juani.



—Sartu putzura. Orain etxera bueltan eramango gaitu.

Putzuan sartu eta Julenek esan bezala etxera bueltan bidali zituen. Putzutik atera, arropa jantzi eta kontrol kaxa han ote zegoen bilatzen hasi ziren biak. Bilatu eta baita aurkitu ere; harri baten azpian aurkitu zuten. Lekua markatu eta etxera bueltatzea erabaki zuten.

Bakoitza bere etxean zegoen, pentsatzen. Momentu jakin batean Juani bururatu zitzaion putzu ondoan etxola bat egitea eta, denboran bidaiak eginez, liburu bat idaztea horietan oinarrituta.

Mobila hartu eta Julenekin hitz egiten hasi zen:

—Julen, bururatu zait putzu ondoan etxola bat egitea eta denboran bidaiatuz, ideiekin liburu famatu bat idaztea.

—Ideia bikaina! Bihar bertan hasi dezakegu proiektua, nahi baduzu.

Hurrengo egunean biek Juanen etxean gosaldu zuten, mendiko botak jarri zituzten eta basorantz joan ziren eskuetan mailu, ohol eta iltzeak hartuta.

Putzura iritsi ziren eta lehenengo zuhaitz batzuk botatzen hasi ziren. Lehenengo egun hartan egur batzuk hartu eta etxolaren egitura egiten saiatu ziren. Oso zaila egiten zitzairen, lurra gogorra zegoelako, baina azkenean lortu egin zuten.



Egun pare bat pasa zituzten lanean, jo eta ke. Hirugarren egunean etxola bukatzeaz zegoen. Baina biak lanean ari zirenean, bat-batean, soinu izugarria entzun zuten. Basoaren goiko aldera igo ziren eta alkatea ikusi zuten bi zultatzaile handirekin.

—Juan, alkatea da! Zer egingo dugu?



—Ez dakit, baina hau gelditu behar dugu.

—Bai, eta oraintxe bertan!

Julen alkatearengana hurbildu eta esan zion basoa ezin zuela bota, propietate pribatua zela eta parke natural izendatu zutela. Orduan, alkatea, hori entzutean, beldurtu egin zen eta atzera egin zuen, udaletxera bueltan.

Gezurra zen, ordea, eta Juanek eta Julenek plan bat behar zuten basoa ez apurtzeko. Gau eta egun pasatzen zuten soluzioa bilatzen. Azkenean, asko pentsatu ondoren, Juanek ideia bat eduki zuen:

—Julen, ideia bat daukat.

—Esan ba, ea zer bururatu zaizun...

—Putzu magikoa urte batzuk atzeratu eta basoko lurraldeen jabe izendatuko dugu geure burua.

—Eta nola egingo dugu hori?

—Hori niri utzi, zerbait daukat pentsatuta.

—Beno ba, goazen gauzak prestatzera. Zer behar dugu?

—Papera eta boligrafoa. Ezer gehiagorik ez.

—Hori bakarrik? —Julen harrিতuta zegoen.

—Bai. Oso gauza simplea da.

Hurrengo egunean Juan eta Julen basora joan ziren paper eta boligrafoarekin. Putzu ondoko etxolan txamarra batzuk hartu zituzten eta putzua 1998. urtera atzeratu zuten.

Julenek ez zekien ezer, baina Juan oso seguru ikusten zuen eta aurrera jarraitzeko gogoia ematen zion. Han zeuden, 1998. urtean, Argiriz basoan. Oso zaharra iruditu zitzairen, aspaldikoa. Basotik atera eta Donostiako hirirantz abiatu ziren.

—Zer duzu buruan, Juan? —Julenek jakin-minez.

—Alkateari orri bat sinatzeko eskatuko diogu. Orain, urte bat atzerago, ez du basoa bota nahi eta leku ziztrin bat iruditzen zaio. Basoa dohainik emango digu, eta horrela alkatea berriro basoa botatzera etortzen denean, paper hau erakutsi eta atzera egin beharko du.

—Ideia bikaina, Juan. Goazen ba alkatearengana!

Udaletxera iritsi ziren, urduri. Juan eta Julen eskailera batzuk igotzen hasi ziren.



Zuriak ziren, marmolezkoak. Eskaileretan alfonbra gorri bat zegoen. Hollywood-eko aktoreak ziruditen handik pasatzean. Azkenean iritsi ziren alkatearen bulegora.

Atea jo eta barrura sartu ziren.

—Kaixo, alkate jauna. Gu Julen eta Juan gara, gure gurasoek bidali gaituzte etxe ondoko basoaren orri hau sina dezazun —esan zion Julenek ahots grabe eta sendoa jarritz.

—Nahi duzuen bezala; baso horrek ez du ezertarako balio, baina tira, zuen nahia hori bada... —alkateak mespretxu aurpegiarekin.

Sinadura lortu zuten. Alkateari eskerrak eman eta udaletxetik atera ziren.

—Ikusten, Julen! Zer esan dizut? Hau alkatearentzat ez da ezer.

—Arrazoi zenuen. Orain goazen azkar putzura. Alkatearen aurpegia ikusi nahi dut bihar.

Biak putzuan sartu eta etxera itzuli ziren, 1999. urtera. Etxera bueltatu eta deskantsatu egin zuten, hurrengo eguneko desafioari aurre egiteko.

Hurrengo goizean Juan eta Julen basora joan ziren firmadun paperarekin. Denbora pasatzeko, etxola bukatu eta dekoratzen jarri ziren. Ordu batzuk geroago alkatea iritsi zen, bere bi makina erraldoiekin.

—Kaixo berriro ere, lagun maiteak. Gezur galanta sartu didazue. Baso honek ez du jaberik.

—Nola ezetz? Gu gara jabeak. Ez badidazu sinesten begira orri honi. Lehengo urtean firmatu zenuen —Juanek hartu zuen hitza.

—Nola da posible! Mukizuak! Ikusiko duzue!

Alkateak buelta erdia eman eta ospa egin zuen.

Juan eta Julen poz-pezik jarri ziren eta, ospatzeko, Julenen etxera joan ziren afari ederra egitera.